




4. DIRU-SARRERAK

- HASIERAKO FINANTZAZIOA:

Gure enpresa sortu ahal izateko hasieran, **bazkide** bakoitzak **diru kantitate** bat inbertituko du enpresa jarduera aurrera atera ahal izateko.



Honetaz gain **Espainiako Gobernuak** eskainitako mailegu bat eskatuko dugu ekintzaile gazteei zuzenduta daudenak, hauek kudeatzeaz arduratzen den enpresa Enisa deitzen da. Enpresak eskatutako ezaugarri guztiak betetzen ditugula egiaztatu ostean bete beharreko datu guztiak bete ditugu, orain emaitzen zain gaude.

Diru laguntza hauen helburua sortu berri diren **“pyme-ak eta startup-ak”** **finantzatzeko** maileguak ematea da, enpresa berri hauek hasierako inbertsioak egin ahal izateko. Maileguaren balio minimoa 25.000€koa izan daiteke eta maximoa 75.000€koa.

<https://www.enisa.es/es/financia-tu-empresa/lineas-de-financiacion/d/jovenes-emprendedores>





- **DIRU SARRERAK:**

-Aktiboen salmenta


Gure enpresak eskaintzen dituen ondasunen truke bezeroek ordainduko dutenari dagokionez, **ondasun motaren arabera**koa izango da. Hauek izango dira gure diru sarrera nagusiak, **aktiboen salmenta** deritzoguna hala ere, hauek lortu ahal izateko bezeroei eskura jartzen dizkiegun birziklatutako beirazko bitxiak egiteko prozesuan arreta handia jarri behar dugu oso konplexua delako.

Gure helburua **hilaro 5.000€** irabaztea da bitxiak salduz.

Gauza guzti hauek kontuan izanda eta zenbait bezero ezezagunen iritzia entzun eta gero, hurrengoa erabaki dugu:

PRODUKTUA	PREZIOA	IRUDIA
Eskumuturrak:	15 € - 20 €	
Lepokoak:	15 € - 20 €	
Eraztunak:	10 € - 15 €	
DecoHouse:	10 € - 70 €	
Produktu Pertsonalizatuak:	15 € - 50 €	



Belarritakoak:	10 € - 15 €	
-----------------------	-------------	---

- **DIRU SARRERAK LORTZEKO MODUAK:**

-**publizitatea:**

Bezeroak erakartzeko, eta modu honetan gure **diru sarrerak handitzeko** **publizitatea** erabiliko dugu, hala ere, hau enpresa berri bat denez, pixkanaka-pixkanaka hasiko gara lehenengoz **sare sozialetatik** hasiko gara, bertan gure bitxien diseinuak argitaratuz eta bezeroen arreta erakarriz.

INSTAGRAM: **@birbeiratu** <https://www.instagram.com/?hl=es>



FACEBOOK: **Birbeiratu Elkartea** <https://www.facebook.com/>



TWITTER: **@birbeiratu** <https://twitter.com>





- **harpidetzagatiko saria:**

Diru sarrerak lortzeko beste modu bat, gure **bezeroen konfiantza** bereganatzea izango da. Horretarako bezeroek beira ekartzen duten bakoitzean **deskontuak** emango dizkiegu, modu honetan, hurrengoan gure enpresara etorriko direla ziurtatzen dugu, ditu **diru sarrerak** handituz.

%.....(e)ko
DESKONTUA

B